

Aditz trinkoen orainaldiko formak Luzaideko euskaran

PATXI SALABERRI ZARATIEGI*
PEIO KAMINO KAMINONDO**

Hemen aurkezten dugun lantxo hau aldizkari honetan berean argitara eman berri dugun lanaren jarraipena da. Hartan hitz eratorriak biltzen genituen eta aitzinsolastako Luzaideko euskaraz arduratu direnen zerrenda modukoa ere ematen genuen. Gure lanetan usaiakoa denez, baziren hutsune nabarmen batzuk, bibliografian partikulazki: ez genuen aipatzen Iñaki Seguroiak *ASJU*-n 1985ean karrikaratu zuen Etxeberriren dotrina, ez eta artikulu hau zela-eta Sastrustegik aldizkari berean 1986an atera zuena. Luzaideko datuak biltzen dituen Etxaideren 1989ko liburua ere ez genuen mintzagai hartu, ez eta hitz eratorrien inguruan Miren Azkaratek orain urte batzuk (1990) apailatu zuen lan interesgarria ere. Bukatzeko, Koldo Artolaren laguntzaz P. Irizarrek argitaratu dituen liburu mardulak ere ahantzirik gelditu zitzaizkigun (1999, 1999b). Hutsune anitz eta larriak, beraz, erran bezala, eta segur aski ez bakarrak.

Zorrak aitortu ondoan jo dezagun aitzina. Artikuluxka honetan Luzaideko aditz aberatsaren atalño bat, geroko beste zenbaiten aitzindari datekeena, bildu nahi izan dugu: orainaldiko aditz trinkoak, iragankor nahiz iragangaitzak. Bestelako formak, laguntzaileenak alegia, Irizarrek jaso ditu –Bonapartek ere bildu zituen adizki bakan zenbait 1881eko bere lantxoan eta gehiago besteren batean, Irizarrek (1999b: 260) dioenez– eta hemen ere zer errana baden arren, beharrik handiena trinkoetan dago, orain arte ez baitira ez jaso eta ez aztertu, dakigunez.

Hemen, hortaz, aditz trinkoen paradigmak biltzen ditugu, hiru erregistroetan: eztabadakoa, xukako alokutiboan eta hikakoan (toka eta noka); honetaz landa, *-ke*-dun formak ere jasotzen ditugu, erabiltzen diren kasuetan. Paradigmak eman ez ezik, adizki bakoitzak dituen konbinaketako aldaerak zein diren ere zehazten dugu, garrantzizko iruditu zaigunean. Sail

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

** Luzaideko euskaltzalea.

honetan nabarmentzekoak dira, **edun*-en formetan, aditz nagusiaren bukaera desberdinak: kontsonante den edo bokala, eta bigarren kasuan zein bokal den, honen arabera laguntzaileek, batez ere laguntzailearen lehen soinuek, zenbait aldakuntza jasaten baitituzte. Aditz modal batzuen jokabidea ere ikertu dugu, *behar izan* eta *nahi izan* -ena, hain zuzen ere.

Hona hemen, beraz, aipatu paradigmatikak:

A. ADITZ IRAGANKORRAK

1. **Edun*, *ukan*

1.1. Eztabadakoa

Baiezkoetan adizki hauek ditugu, kontsonante ondoan: *dút / tút* (Irizarrek [1999b: 295] testu zaharretarik atera *ditut* biltzen du); *dúzu / túzu*; *dú / tú* (hárek); *dú / tú* (gúk) (Irizarrek [1999b, 2. koadroa] *duu / tuu* jasotzen ditu hizkera bizitiek eta *dugu* testu zaharretarik [ibid., 294]); *dúzje / tzjé* (cf. Satrustegi [1981: 345]: «Óndoco egunetan yaquinen *tuzie* berriac chehequi»). Irizarrek [1999b, 2. koadroa] *duzie / tuzie, tzie* dakartza); *dúte / dúzte, djúzte* (gutxiagotan). Irizarrek *dute / duzte, diuzte, tuzte* jasotzen ditu hizkera bizitiek eta *dituzte* Luzaideko testu zaharretarik (ibid., 296).

Bokalaren ondoan *d-* galtzen da, baina ez beti. Honela gelditzen dira adizkiak *-a* (*átea* ‘atera’), *-e* (*béte*), *-i* (*kúsi, ikúsi*), *-o* (*jó*) ondoan: *baút / batút, baítút* (gutxiago); *baúzu / batúzu; badú / batú, baítú* (gutxiago) (hárek); *badú / batú, baítú* (gutxiago) (gúk); *baúzje / bátzje; baíte / bàtuzté, bàdjuzté* (gutxiago). Berdin *ba-* izateko partez bokalez bukatzen den aditz nagusia denean, erran bezala: *átea út / tút; átea uzú / túzu; átea dú / tú* (hárek); *átea dú / tú* (gúk); *átea úzje / átea tzjé; átea úte / átea túzte, djúzte* (gutxiago). Satrustegik karrikatutako gutunetan, behin, «eta orai iduri dichi» dugu, hala ere (1981: 346).

Aditz nagusia *-u-z* bukatzen denean honela gelditzen da: *hártut, hártuút / hártu tút; hártuzú, hártuuzú / hártu túzu; hártu dú / hártu tú* (hárek eta gúk); *hártuzjé, hártuuzjé / hártutzjé; hártuté, hártuuté / hártu tuzté, hártu duzté, hártu djuzté* (gutxiago).

Náhi ukán, behár ukán aditz modalekin hurrengo hau dugu: *náyt / náhi tút, náí tút; náyzu / náhi túzu, náí túzu; náhi dú, náí du / náhi tú, náí tu* (hárek eta gúk); *náyzje / náhi tzjé, náí tzjé; náute / náhi túzte, djúzte* (gutxiago), *náí túzte, djúzte* (gutxiago) // *be(h)áyt / be(h)ár tút; be(h)áyzu / be(h)ár túzu; be(h)ár dú / be(h)ár tú* (hárek eta gúk); *be(h)áyzje / be(h)ártzje; be(h)áute / be(h)ár duzté, tuzté, djuzté* (gutxiago).

Ezezkoetan *d -> t* burutzen da: *eztút / eztút, eztítut* (zenbait aldiz); *eztúzu / eztúzu; eztú / eztú, eztítu* (hárek); *eztú / eztú, eztítu* (gutxiago) (gúk); *eztúzje / etzjé; eztúte / eztúzte, eztjuzte* (gutxiago). Dena dela, Satrustegiren gutunetan ahostuna atxikitzen duten formak badira: «ohono ez dichiu bate quenduic» (1981: 345); «bana beden ez dichit sofritzen. Ez dichit ohoitu nahi zer sofritu dutan» (ibid., 346).

Mendeko perpausetan, lehen pertsonako *dút / tút* adizkiek aldakuntza batzuk izaten dituzte: *baút -> badwála* edo *bautála; batút, baítut -> batwála* (normalean), *bàduztála* (gutxiago). Cf. «duaique mehxi tualaco» ‘dirudie-nez merezi ditudalako’ (Satrustegi, 1981: 346).

1.2. Hika (toka / noka)

Baiezkoetan aldaera hauek ditugu, kontsonante ondoan: *dját - dinát / tját - tinát; dúk - dún / túk - tún; dík - dín / tík - tín; djáu - dináu / tjáu - tináu; djé - diné / tjé - tiné.*

Bokal ondoan *d-* galtzen da, baina ez beti. Honela gelditzen dira adizkiak *-a* (*átea* 'atera'), *-e* (*béte*), *-i* (*kúsi, ikúsi*), *-o* (*jó*), *-u* (*hártu*) ondoan: *badját - bainát / batját - batinát; baúk - baún / batúk - batún; bájk - bájn / batk - batin; badjáu - baináu / batjáu - batináu; badjé - bainé / batjé - batiné.* Irizarrek (1998b, 2. koadroa) forma horiek berak biltzen ditu.

Náhi ukán, behár ukán aditz modalekin hurrengo hau dugu: *náhi dját - náhinát / náhi tját - náhi tinát; náuk - naún / náhi túk - náhi tún; nahík - nahín / náhi tík - náhi tín; náhi djáu - náhináu; náhuzjé / náhi tzjé; náhi djé - náhiné / náhi tjé - náhi tiné* || *behár dját - behárat / behár tját - behár tinát; beháuk - beháun* (cf. AB-ren hau: «egun in behaun») / *behár túk - behár tún; behájk - behájn / behár tík - behár tín; behár djáu - beháináu* (cf. AB-ren hau: «ba, guke juan behainau, ba, ono ikustea era nun bizi dién») / *behár tjáu - behár tináu; beháuzje / behártzjé; behár djé - behájne / behár tjé - behár tiné.* Adizki hauek guztiak *-h*-rik gabe ere ebaki daitezke; horrelakoetan dipton-goia dugu *nahi ukan* aditzean (*náj dját*, konparazione).

Ezezkoetan *d -> t* gertatzen da: *eztját - eztinát / eztját - eztitját - eztinát* (?); *eztúk - eztún / eztúk, eztitúk - eztún, eztitún; eztík - eztin / eztitík - eztitín; eztjáu - eztináu / eztjáu, eztitjáu - eztináu, eztitináu* (?); *eztuzjé / etzjé; eztjé - eztiné / eztjé, eztitjé - eztiné, eztitiné.* Pluraleko forma hauetako batzuk ez dira arrunt seguruak.

1.3. Xuka

Hemen Bonapartek XIX. mendean, ekialdeko behenafarreran, «dans les terminatifs diminutifs» zekusan *xu -> xi* aldakuntza (1991: 237; asimilazioa alegia) aurkitzen dugu, aurreko silaban bokal palatala dugunean: **dixut -> dixit, *dixue -> dixie...*

Baiezkoetan aldaera hauek ditugu kontsonante ondoan: *dixit / txít; dúxu / txú; díxi / txí; dxju / txjú; duzjé / tzjé; dixje / txjé.* Irizarrek (1999b: 294) *dixigu* forma ere bildu du, *dixiu* eta bokal ondoko *ixiu* ez ezik.

Aditz nagusia *-i*-z bukatzen denean forma hauek ditugu: *kárrixít / kárritxít; kárríuxu / kárritxú; kárrixí / kárritxí; kárrixjú / kárritxjú; kárrixjé / kárritxjé; kárrixjé / kárritxjé.*

Beste bokalen ondoan hasierako *d-* galtzen da singularrean: *áteaixit; béteixi; hártuxje; jóuxú...* Aditz nagusia *-u*-z bukatzen denean forma berak ibiltzen dira, salbu *xuk* denean, honetan *-u + u -> -u* egiten baita: *hártuxú* 'hartu duxu'. Satrustegiren gutunetan, dena dela, «yuan beharco dichit», «ina dichie», «ecarri dichie» ageri dira (1981: 344, 346), guretako arruntenak *iwán behárko íxit, ina íxje, kárrixjè* badira ere. Aipatu gutunetan, halere, «baichi muticoñoat» ere azaltzen da (ibid.).

Pluralean beti aldaera berak erabiltzen dira, aditz nagusia zertan bukatzen baita ere: *áteatxjú; kárritxít; bétetxí; sártutxjú...* Satrustegik argitaratu emandako gutunetan (1981: 344) *tichiu* ageri da («biziqui dembora ederrac tichiu, ya ttipittiac tichiu»).

AB-k forma hauek erabiltzen ditu: *ditixit* (behin: «estimatiak ditixit»), *itixit* (*-a* ondoan), *itxit* (*-a, -u* ondoan), *tixit* (kontsonante, *-a, -u, -i* ondoan),

txit (kontsonante, -e, -i, -u ondoan), *ditixiu* (kontsonante ondoan), *itixiu* (-a ondoan), *tixiu* (kontsonante, -u ondoan), *tuzie* (-i, -o, -u ondoan), *tixie* (kontsonante ondoan), *txie* (kontsonante, -a, -o, -u ondoan), *ditxie* (behin, kontsonante ondoan).

Ezezkoetan singularra eta plurala berdin egiten dira normalean:

Etxít ín ‘ez dixut egin, ez ditixut egin’; *etxú ín* ‘ez duxu egin, ez dituxu egin’; *etxí ín* ‘ez dixu egin, ez ditixu egin’; *etxjú ín* ‘ez dixugu egin, ez ditixugu egin’; *etxjé* ‘ez dixute egin, ez ditixute egin’.

Pluraleko bigarren pertsona, ordea, ongi bereizten da, ez baita, jakina denez, alokutiboa: *eztuzjé ín* / *etxjé ín*. Beste pertsonetan ere zenbait aldiz singularra eta plurala nahas daitezke: *eztixít ín*, *etxít ín* ‘ez dixut egin’ / *etxít ín* ‘ez ditixut egin’; *eztuxú ín*, *etxú ín* ‘ez duxu egin’ / *etxú ín* ‘ez dituxu egin’; *eztíxí ín*, *etxí ín* ‘ez dixu egin’ / *etxí ín* ‘ez ditixu egin’; *eztíxju ín*, *etxjú ín* ‘ez dixugu egin’ / *etxjú ín* ‘ez ditixugu egin’; *eztixjé ín*, *etxjé ín* ‘ez dixute egin’ / *etxjé ín* ‘ez ditixute egin’.

Náhi ukán aditz modalean -i-z bukatzen direnekin erabiltzen diren aldaera berak ibiltzen dira, baina *xúk* denean *náuxu* egiten da singularrean, eta *zjék*-ekin *náuzje*. Pluralean beti forma berak ditugu (ikus goraxeago).

Behár ukán-ekin *behár*-en azkeneko soinua galtzen da, dardarkaria alegia, eta laguntzailearen hastapeneko *d*- ere bai, singularrean: *be(h)áixit*; *be(h)áuxu*; *be(h)áixi*; *be(h)áixju*; *be(h)áuzje*; *be(h)áixje*. Satrustegiren gutunetan «behereco carretera yuntatu behaichi» dago (1981: 346).

Pluralean, ordea, dardarkaria gordetzen da eta aditzean usaiako aldaerak ditugu: *be(h)ártxít*; *be(h)ártxú*; *be(h)ártxí*; *be(h)ártxjú*; *be(h)ártzjé*; *be(h)ártxjé*.

1.4. ke-dun adizkiak

1.4.1. Eztabadakoa

Kontsonante eta bokal ondoan, eta aditz modalekin, forma hauek ditugu:

Dukét / *tuzkét*, *duzkét*; *dúkuzù* / *dúzkutzù*; *duké* / *tuzké*, *duzké*; *dúkeú* / *túzkeú*, *dúzkeú*; *dúkezjé* / *túzketzjé*, *dúzketzjé*; *dúketé* / *túzketé*, *dúzketé*.

1.4.2. Hika

Dikeàt – *dikenàt* / *dízkeàt* – *dízkenát*; *dukék* – *dukén* / *tuzkék* – *tuzkén*; *díkék* – *dikén* / *dízkek* – *dízken*; *díkeàu* – *dikenàu* / *dízkeàu* – *dízkenàu*; *díkeatè* – *díkenatè* / *dízkeatè* – *dízkenatè*.

1.4.3. Xuka

Díkixít / *dízkitxít*, *dúkuxù* (AB-k «badukexu») / *dúzkutxù* (AB-k «baduzketxu»), *díkixì* (AB-k «badikexi») / *dízkitxì* (AB-k «badizketxi»); *díkixjú* / *dízkitxjú*; *dúkezjè* / *túzketzjè* edo *dúzketzjè*; *díkixjè* edo *díkixitè* (AB-k «dikexie») / *dízkitxjè* edo *dízkitxitè*.

2. Eduki

Puxka bat goiti-beheiti erdarazko ‘retener’ aditzaren zentzua du; ‘gordè’-rena ere bai. Konparazione, «preso»-rekin ibiltzen da: *présò dáukatè*; *hémen dáukat*; *ingurátwik dáukatè*.

2.1. Eztabadakoa

Badáukat / badáuzkat; badáukazù / badáuzkatzù; badáuka / badáuzka; badáukáu / badáuzkáu; badáukazjè / badáuzkatzjè; badáukatè / badáuzkatè. AB-k *daukala* eta *daukela* ibiltzen ditu, ‘eduki dezala’ adieraz.

Ezezkoetan *d* -> *t* dugu; besterik ez dago aipatzekorik.

2.2. Xuka

Badjáukuxùt / badjáuzkutxùt; badáukaxù / badáuzkatxù; badjáukuxù / badjáuzkutxù; badjáukuxjù / badjáuzkutxjù; badáukazjè / badáuzkatzjè; badjáukuxutè / badjáuzkutxutè.

AB-k «daukaxie» darabil: «Eztixi deuse erraiten jiteko solasik, segeretian daukaxie beren jiteko berria, bana fite erran behaixie, jitekotz» (115. gutuna). Espero genuena «diukaxie» zen, alokutiboaren ezaugarria tarteko kontsonanterdia baita. Ikus daitekeenez, bestalde, pluraleko hirugarren pertsonetan -*xute* / *xie* aldizkatzea dago, alegia, pluralgile beraren bi aldaerekin osatutako formen artekoa (-*xute* / -*xue*, etorkiz).

2.3. Hika

Badjáukaat edo *badjáukajàt* - *badjáukanat* / *badjáuzkaat* - *badjáuzkanat*; *badáukak* - *badáukan* / *badáuzkak* - *badáuzkan*; *badjáukak* - *badjáukan* / *badjáuzkak* - *badjáuzkan*; *badjáukaau* - *badjáukanau* / *badjáuzkaau* - *badjáuzkanau*; *badáukazjè* / *badáuzkatzjè*; *badjáukaatè* edo *badjáukajatè* - *badjáukanatè* / *badjáuzkaatè* - *badjáuzkanatè*.

Ikus daitekeenez, zenbait aldiz, hiatoa segurtatzeko-edo -*j*- [j] bat sartzen da bi bokalen artean. Ikus *eraman*. Laguntzailean ere gertatzen da; cf. Irizarrek biltzen dituen *dieiat* ‘zieat’, *dieiau* ‘zieagu’ (1999b, 3. koadroa). Batzuetan, token, -*k*- bat ere izan daiteke tartekatzen dena: *niekan* ‘niean’ (ibid., VI koadroa). Honen ordez *niean*, eta hain segur *niejan* ere, ibil daitezke.

3. eraman

3.1. Eztabadakoa

Badámat ‘badaramat’ (*eremáiten dút* aspektu adiera berberaz ibiltzen da) / *badámatzàt*; *badámazù* / *badámatzazù*; *badáma* / *badámatzà*; *badámau* / *badámatzàu*; *badámazjè* / *badámatzazjè*; *badámatè* / *badámatzatè*.

3.2. Xuka

Badjámaxùt / *badjámatzaxùt*; *badámazù* / *badámatzaxù*; *badjámaxù* / *badjámatzaxù*; *badjámaxjù* / *badjámatzaxjù*; *badámazjè* / *badámatzazjè*; *badjámaxutè* / *badjámatzaxutè*.

3.3. Hika

Badjámaat edo *badjámajàt* - *badjámanat* / *badjámatzaat* - *badjámatzanat*; *badámak* - *badáman* / *badámatzàk* - *badámatzàn*; *badjámak* - *badjáman* / *badjámatzàk* - *badjámatzàn*; *badjámaau* - *badjámanau* / *badjámatzaau* - *badjámatzanau*; *badámazjè* / *badámatzazjè*; *badjámaatè* - *badjámanatè* / *badjámatzaatè* - *badjámatzanatè*.

4. Jakin

4.1. Eztabadakoa

Bàdakít / bàdazkít; badákizù / badázkitzù; bàdaki / bàdazki; badákju / bàdázkju; badákizjè / badázkitzjè; badákità / badázkitè.

4.2. Hika

Bàzikját - bazíkinát baina eztikját (AB-k eztjakiat darabil) – eztíkinát / bazízkját - bazízkínat; badakík - bàdakín / bàdazkík - bàdazkín; bàzjakík – bàzjakín / bàzizkík - bàzizkín; bàzikjáú - bazíkináú / bàzizkjáú - bàzizkináú; bazíkjatè – bazíkinatè / bazízkjatè - bazízkínatè.

4.3. Xuka

Badjákixùt / badjázkitxùt; badákixù / badázkitxù; badjákixù / badjázkitxù; badjákix(j)ù / badjázkitx(j)ù; badákizjè / badázkitzjè; badjákixutè / badjázkitxutè.

Hauekin batean, hurrengo hauek ere ibiltzen dira:

Bazjákixùt / bazjázkitxùt; badákixù / badázkitxù; bazjákixù / bazjázkitxù; bazjákixjù / bazjázkitxjù; badákizjè / badázkitzjè; bazjákixutè / bazjázkitxutè.

Satrustegik argitara emandako gutunetan (1981: 345) *baziaquichut* ageri da, *bazjákixut* alegia. Ikertzaile honek berak *badiaquichut*, *ez diaquichut* formak zerrendatzen ditu, irudi duenez beste gutun zenbaitetarik atera dituenak, baina gero ezezko adibideaz besterik ez du ematen: «ez diaquichut zerrendaco», hots, usaiakoa den forma (ikus beheitiago).

Nolanahi ere, AB-k *diakixut* (ník), *diakixu / badiazkitxu* (hárek), *diakixie, diakixute* (hék) ibiltzen ditu, *dja*-dun aldaerak, sekulan ez *zja*-dunik.

Ezezko formetan hasierako *d-*, *z-* > *-t-* pausoa gertatzen da:

Eztjákixùt / eztjázkitxùt; eztákixù / eztázkitxù; eztjákixù / eztjázkitxù, eztjázkitxù (hárek); *eztjákix(j)ù / eztjázkitx(j)ù* (gúk); *eztákizjè / eztázkitzjè; eztjákixutè / eztjázkitxutè*. Satrustegik (1981: 352) *ez diaquichut* eta *ez diaquichu* jasotzen ditu; AB-k, berriz, *eztiakixut* (ník), *eztiakixiu* (gúk), *eztiakixie* (hék) erabiltzen ditu.

4.4. ke-dun formak

Badákikezù / badázkiketxù; badákikè / badázkikè badákikezjè / badázkiketxjè (eztabadakoa) // *badákikexù / badázkiketxù* (xuka) // *badákikèk, -n / badázkikèk, -n* (hika).

Hauen ordainetan *jakína dukéxu, jakína duké, jakína dukéte, jakína zikixin* (hau iraganaldian)...e.a. erabiltzen dira maiz.

5. Bestelakoak

5.1. Erasi

zér dásak? (< zer derasak) ‘zer diok?’ (baina norbaiti kontra egiterakoan eta; ez da arras «zer diok»-en baliokidea: *zér dasák, zózo háundja hí?*); *zér dasáxu?*; *zér dása hórrek?*; *zér dasázje zjék?*; *zér dasáte hék?*...

5.2. *Io

**Io* (‘erran’) aditzaren forma bakan zenbait ere ibiltzen dira: *djót (?)*; *djózu*; *djó*; *djóu (?)*; *djózje*; *djóte* eztabadakoan; *djók, -n* (hík, hárek); *djóatè, djónatè (?)* (hék) hikako alokutiboan eta *djóxo* (xúk, hárek; Satrustegik [1981:

352] *diochu* [hárek] jasotzen du); *djóxote* (hék) xukakoan. AB-k *dioxu* (xúk), *dioxie* (hék) darabiltza.

Adizki hauek, aski harrigarriro, ‘Zer moduz (zaude, dago, zaudete, daude...)’ balioa hartzen dute: *zér djók, mutíkwa? Untsa (h)izá?; zér djoté aítámek? / úntsa txú* (‘-zer moduz gurasoak? / -ongi daude’). Cf. hurrengo hau (Satrustegi, 1981: 344): «Erraiten dachu zer dion Goyenechiac zerratuic; nic seuric pasatzian beti soñoat iten diacochut», alegia, ‘erraten didaxu zer moduz dagoen Goienetxea (etxe izena da hau, bistan denez) itxirik; nik behintzat pasatzean beti begiratutxo bat ematen diot (xuka).

B. ADITZ IRAGANGAITZAK

1. Egon

1.1. Eztabadakoa

Banó; bazáude; badó; bagáude; bazáite; badáude.

AB-k *dago, doo* («doola» ‘dagoela, egon dadila’), *do* («dola» ‘dagoela, egon dadila’) erabiltzen ditu.

1.2. Xuka

Banjóxo; baxáude edo *baxáde; badjóxo; bagjáudexù* edo *bagjádexù; badjáudexù* edo *badjádexù*. Luzaideko gutunetan *niochu* dugu (Satrustegi, 1981: 346): «ni berrize maltso niochu» ‘ni berriz ere apal (erixko) niagoxu’. AB-k *nioxu, dioxu, giaudexu, diaudexu* darabiltza, hots, asimilatugabeko aldaerak.

1.3. Hika

Banjók, -n; bahágo; badjók, -n; bagjáudek, -n; badjáudek, -n.

1.4. ke-dun formak

Nehóne eztjáukexù ‘inon ere ez dagoke, ezin egon daiteke’.

2. ibili

2.1. Eztabadakoa

Banáila; bazáiltza; badáila; bagáiltza; bazáiltzatè; badáiltza.

2.2. Xuka

Banjáilaxù; baxáiltxa; badjáilaxù; bagjáiltzatxù; badjáiltzatxù.

2.3. Hika

Banjáilak, -n; baháila (≠ *háil* -> agindua); *badjáilak, -n; bagjáiltzak, -n; badjáiltzak, -n.*

3. Izan

3.1. Eztabadakoa

Níz; zíra; dá; gíra; zízte; díra.

Gíra, zíra (*xíra*), *díra*-ren kasuan, menderagailua lotzen zaielarik, bokal arteko *-r-* hori galtzen da: *behánt jintxíra / jintxjélaik hémen nintxun; samúrtu díra / eztjákixùt zéndakò samúrtu djén*. Irizarrek (1999: 283) *gia* adizkia ate-

ratzen du Satrustegiren lan bateko *aniz oroitzen giela*-tik eta grabazio bateko *guhaunain eta hesten ai giela*-tik, baina ez da ohartu menderagailurik gabeko adizkiak *-r-* atxikitzen duela. Honetan lagundu izanen dio, zalantzarik gabe, N. Politen testuetan *vildu guiren guciac, iltzen guiren pundian*-en modukoak agertzen direla ikusteak.

Gainera, Satrustegik argitara emandako eskutitzetan ere ageri da inoiz honelakoren bat: «arrunt berantetsia chirela» (1981: 344), «yaquiten ahal du-chu horiengatic direla denac» (ibid., 345). Bonapartek (1881: 165) *ziizte* jaso zuen.

3.2. Xuka

Núxu; xira; dúxu; gítxu (*xúka áj gítxu* ‘xuka ari gaituxu’). Satrustegik *gituxu* jaso zuen [1981: 345]: “Orai achuri saltzen hasico guituchu”); *zízte; txú* (AB-k *dituxu* ibiltzen du, eta *baituxu, txu, batxu* ere bai. Satrustegiren gutunetan [1981: 346, 347] «orai hari tuchu», «Aizan tuchu», «gohor tuchu ohono» ‘gogor dituxu oraindik’ ageri dira). *Dúxu*-ri aitzinean *ba-* ezartzen zaiolarik *baúxu* erraten da, **edun, ukan* ukitzerakoan ikusi dugun bezala. Satrustegik (ibid., 344) *bauchu* jasotzen du, baina honen ondoan *baduchu* (ibid.) eta *guelditia duchu* (ibid., 346) ere badakartza.

3.3. Hika

Núk - nún; híz; dúk - dún; gitúk - gitún; túk - tún.

Irizarrek Artolaren errana bilduaz dioenez (199b: 282), *ibili hiz*-en moduko adizkietan aspirazioa erdizka baizik ez da aditzen.

3.4. -ke-dun formak

Datéke ‘dateke’, *ditázke* ‘dirateke’ ditugu eztabadako erregistroan, *dukúxu* (AB-k «dukexu»), *duzkútxu* (AB-k «duzketxu») xukako alokutiboan eta *dukék, -n/duzkék, -n* hikakoan.

3.5. Zuka

Orain arte aipatu ditugunez gainera, *nuzu, duzu* zukako adizkiak ageri dira Satrustegik argitara emandako gutunetan («eta unxa nuzu; Yropan ezduzu hemen bano gorpuzarendaco placerrac aisago emanen dazconic». Irizar, 1999b: 282, 283). Egun, ordea, ez da zukako alokutiborik ibiltzen Luzaiden.

4. Joan

4.1. Eztabadakoa

Bànuá; bazázi; bádwa; bagátzi; bazázte; badátzi.

4.2. Xuka

Banjáxu; baxáxi; badjáxu; bagjátzixù edo *bagjátzixù; bazázte; badjátzixù* edo *badjátzixù*. Satrustegik (1981: 352) «orai baniachu lo itea» dakar.

4.3. Hika

Banják, -n; báwa; badják, -n; bagjátzik, -n; bazázte; badjátzik, -n.

5. Bestelakoak

5.1. Egon

Dohókola ‘dagokiola’ (ez da segurua).

5.2. Erion, jarien

Zakúrra hagúna darjola jìn dá.

BIBLIOGRAFIA

- AZKARATE, M. (1990): *Hitz elkartuak euskaraz*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- BONAPARTE, L. L. (1881): "Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos", *Revista Euskana* IV, 161-166.
- (1991): *Opera Omnia Vasconice*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1. alea, J. A. Arana Martijak prestatutako argitalpena.
- ETXAIDE, A. M^a (1989): *El euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura 8, Donostia.
- IRIZAR, P. (1999): *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental (estudio dialectológico)*, Euskal Herriko Unibertsitatea & Euskaltzaindia, Iruñea.
- (1999b): *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (estudio dialectológico). Tomo 1. Subdialecto de Cizo-mixano*, Euskal Herriko Unibertsitatea & Euskaltzaindia, Iruñea.
- SATRUSTEGI, J. M. (1981): "Xukako aditz joskera Luzaideko mintzairan", *Iker-1*, Euskaltzaindia, Iruñea, 343-354.
- (1986): "Luzaideko Echeverriren dotrinari oharrak", *ASJU* XX-1, 3-30.
- SEGUROLA, I. (1985): "Etxeberri Luzaideko bikarioaren dotrina argitaragabea", *ASJU* XXI, 129-197.
- (1985b): "Argitaragabea?", *ASJU* XIX-2, 621-622.

LABURPENEA

Lantxo honetan Luzaideko aditz aberatsaren alderdi txiki bat baizik ez dugu ukitzen, hain zuzen ere adizki trinkoen orainaldiko paradigmei dagokiena, bizirik dauden hiru erregistroetan, hots, eztabadakoan, hikako alokutiboan (toka / noka) eta xukakoan. Luzaiden ibiltzen diren *-ke*-dun formak ere jaso ditugu eta garrantzi berezia eman nahi izan diegu adizkien konbinaketako aldaerei. Gainera, laguntzaileak ere badiren **edun* edo *ukan* eta *izan*-en kasuan bereziki, aditz nagusia kontsonantez edo bokalez bukatzen den aztertu dugu, eta bigarren kasuan zein bokalez bukatzen den. Ezezkoetan adizkiek izaten dituzten aldakuntzak eta aditz modalekin (*behar ukan* eta *nahi ukan*-ekin) laguntzaileek hartzen duten itxura ere aintzat eduki ditugu.

RESUMEN

En este artículo solo recogemos una pequeña parte de la rica morfología verbal del euskera de Luzaide / Valcarlos, a saber, el presente de los verbos sintéticos en los tres registros existentes en la actualidad: neutro, alocutivo de tuteo y alocutivo diminutivo. También hemos recogido las formas verbales en *-ke* utilizadas en la localidad y hemos querido hacer hincapié en las variantes combinatorias que presentan. Especialmente en el caso de **edun* o *ukan* e *izan* que además de sintéticos son auxiliares, hemos examinado las formas empleadas cuando el verbo principal acaba en consonante y en vocal, viendo en el segundo caso los cambios producidos por los distintos grados de apertura. También hemos tomado en cuenta los cambios que experimentan las formas verbales en las oraciones negativas y en los verbos modales (*behar ukan*, *nahi ukan*).

RÉSUMÉ

Nous ne recueillons dans cet article qu'une petite partie de la riche morphologie verbale de l'euskera de Luzaide / Valcarlos, c'est à dire le présent des verbes synthétiques dans les trois registres existant dans l'actualité : Neutre, allocutif de tutoiement et allocutif diminutif. Nous avons aussi recueilli les formes verbales en *-ke* utilisées dans la localité et avons voulu souligner les variantes combinatoires qu'elles présentent. Nous avons spécialement examiné, dans le cas de **edun* ou *ukan* et *izan* qui en plus de synthétiques sont auxiliaires, les formes employées lorsque le verbe principal termine en consonne et en voyelle, en remarquant dans le deuxième des cas, les changements produits par les divers degrés d'ouverture. Nous avons aussi pris en compte les changements que les formes verbales expérimentent dans les phrases négatives et dans les verbes modaux (*behar ukan, nahi ukan*).

ABSTRACT

In this article we only gather together a small part of the rich verb morphology existing in the Euskara from Luzaide / Valcarlos –namely, the present tense of the synthetic verbs in the three registers currently existing: neutral, allocutive of the “tu” familiar form and diminutive allocutive. We have also gathered together the verbal forms in *-ke* used in the locality and have tried to put emphasis on the combinational variants that they present. Especially in the case of **edun* or *ukan* and *izan* that, in addition to being synthetic are also auxiliary, we have also examined the forms used when the main verb ends in a consonant and a vowel, noting in the latter the changes brought about by different degrees of opening. We have also taken into account the changes experienced by verb forms in negative sentences and in modal verbs (*behar ukan, nahi ukan*).